



Laspita

etxebizitza

Aldacrak: Laspita erdikoa

Ahozkoa: Láspite erdikue / Láspittak



43° 11' 27"

2° 36' 16"

Gerediaga Elkarte / Txelu Angoitia

*“... la casería rústica titulada Laspita erdikoa y su acceso-
ria...situadas en la cofradía o
barriada de Sarria jurisdicción
de la Anteiglesia de Berriz, que
comprenden con sus zaguanes
y horno doscientos noventa y
cuatro estados cuadrados su-
perficiales de planta solar, y las
que se componen de piso bajo y
alto a manera de entresuelo con
sus correspondientes viviendas,
cuadras y habitaciones...”*
DJE, 1/201 or. (1866)

Baserri honen gaineko lehen aipu dokumen-
tala 1704koa da, urte horretako Bizkaiko
su-errodan *Laspita de Medio* aurkitzen dugu.
XVIII. mendean zehar horrela agertzen bada
ere, 1796ko su-errodan *Laspita Erdikoa* moduan
agertzen da. Hortik aurrera, izen horrekin man-
tendu da: *Laspita erdikoa* (1826, BAH, A194/15)
eta *Laspita Erdikoa* (1905, BUA, 40.). Dena den
inguru honetako etxeak zenbait dokumentutan
Laspitas izenarekin agertzen dira, esate baterako
Berrizko Udal-artxiboan gordetzen den 1859ko
izendegian. Ahozko transmisioan ere *Láspi-
tte erdikue* eta *Láspittak* erabiltzen da auzotarren
artean. Azken hori inguru horretako lau etxeei
erreferentzia egiteko *Laspita*, *Laspitabekoa* (**Ikus
Laspitabekoa**), *Laspitagoikoa* (**Ikus Laspita-
goikoa**) eta *Laspitalarra* (**Ikus Laspitalarra**)
erabiltzen da.

toponimia

Zail da izen honi buruzko azalpen on bat ematea. 1704ko aipuan Laspita moduan ageri denez pentsa genezake aurreko osagaia lats “erreka” dela. Garai batean latsa esaten zitzaion urari eta erreka haranari, baina denborarekin lats hitza baztertu zen eta Bizkaian toponimian baino ez dugu aurkitzen. Hori horrela balitz, lats+bi+ta izan litekeela pentsa gene-
zake, baina oso zalantzazkoa da etimo hau.

Jausteko zorian dagoen baserri honek aspal-
diko nekazaritza-etxeen taxuketa dauka, XVII.
mendeko baserri batek baino gehiagok dutena.
Nabarmentzekoak dira bi isurkitako teiltatu-
pean dauden bi gorputz handiak. Erdiko egu-
rrezko dinteldun atarteak batasuna ematen dio,
Iturbegotia (**Ikus Iturbegoitia**) baserrian egin
den antzera. Azpimarratzekoa da ere harlan-
dua baliatu izana beheko solairuan, leihoetan
eta kantal guztietan ertzak egiteko; izan ere,
harlangaitza erabili zuten gainontzeko horme-
tarako. Nabarmentzekoa da, era berean, gaine-
ko solairuetan erabili zuten adreilua, egurrezko
egituran txertatuta ageri zaiguna. Solairuen
antolamendua, bestetik, ohikoa da: behekoa,
lehena eta ganbara.